

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gizarte Gaietako Departamentuak Mendekotasun Legeak Nafarroan duen aplikazioari buruz Comptos Ganberak egindako txostena aitortu du

Kontu publikoen organo azterlariak nabarmendu egin du eskainitako arretaren bolumena, epeak bete direla eta Estatuaren finantzaketa nahikoa izan ez dela

Jueves, 31 de marzo de 2011

Familia, Gizarte, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak emandako ohar batean, Mendekotasun Legeak 2009-2012ko aldian Nafarroan izan duen aplikazioari buruz Comptos Ganberak oraintsu egindako txostena aitortu da. Gizarte Gaietako Departamentuaren arabera, txosten horretan "argi utzi dira legegintzaldi honetan Nafarroan mendekotasuna artatzeko sisteman egon diren hiru alderdi giltzarriak".

Gizarte Gaietako Departamentuaren oharrean hurrengo esaten da:

"Lehenengo eta behin, Comptos Ganberaren txostenean pertsonen eskainitako arretaren bolumen handia azpimarratu da, bai eskaerei, bai balorazioei, bai eskainitako arretari dagokienez.

"Aipatzekoa da, baloratutako eta prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona guztien artean, txostenaren arabera "ehuneko 63k zerbitzuak jasotzen dituztela eta ehuneko 37k, prestazio ekonomikoak jasotzen dituztela".

"Bigarren, txostenaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritako araudia eta legezko epeak betetzen dira.

"Horrez gain, Departamentuak, 2011ko ekainetik, Estatuak proposatutako atzeraeragina ezabatuta, prozesuak xede horretarako planteatutako sei hilabeteetan ebatzen ari da. Horretarako, kudeaketa-izapideak bizkortu dira eta gaur egun 2011ko ekaina, uztaila eta abuztuko eskaerak ordaindu dira."

"Hirugarren, eta mendekotasun Legearen finantzaketari dagokionez, txostenaren arabera, Nafarroako Gobernuak Legearen aplikazioak eragindako aurrekontu-zama nagusia du -%60-, Gobernuari dagokion ehuneko baina askoz handiagoa -%33-; hori dela eta, ia-ia legean ezarritakoa bikoiztu egiten da.

"Zehatz esanda, "Nafarroako Gobernuak finantzaketa-agente nagusia da -kopuru osoaren %60 baina gehiago ematen du-, eta Estatuaren ekarpena bi ekitaldietan kopuru osoaren %18 ingurukoa da". Modu horretan, Estatuaren ekarpena benetan egokitzen zaiona baina askoz txikiagoa da, %33 izan beharko litzateke eta.

"Amaitzeko, Departamentuak auditoreen taldeak egindako lan profesionala aitortu du, baita lan horretan egindako ahalegina ere".